



**ERAKUNDE ADIERAZPENA, UZTAILEAN
NAFARROA ERDIALDEAN ETA IRAILEAN
PENINTSULAREN EKIALDEAN ETA
BALEAR UHARTEETAN IZANDAKO
UHOLDE LARRIAK DIRELA ETA**

1.- Gasteizko Udaleko udalbatzak elkartasuna adierazi nahi die joan den uztailaren 8an euri-jasak eta Cidacos ibaiaren urgoraldiak eragindako kalteak jasan zituzten Nafarroako udalei eta pertsoneri. Eta, bereziki, Atarrabian hildako gaztearen familiari adierazi nahi diogu elkartasuna.

Era berean, elkartasuna adierazi nahi diegu irailaren 9tik 16ra bitartean penintsularen ekialdean eta Balear Uharteetan izandako uholde larriek kaltetutako udalei eta pertsoneri. Bereziki, gertaera horietan hildako zazpi pertsonen senideei helarazi nahi dizkiegu gure doluminak.

2.- Gobernu autonomikoek Estatuko Gobernuari eskatu bezala, inguru horiek hondamen-eremu edo babes zibileko larrialdi batek larriki eragindako eremutzat jotzearen alde ageri da Gasteizko Udaleko udalbatza.

3.- Gasteizko Udaleko udalbatzak bat egiten du dena delako erakundeek Espainiako Gobernuari egindako eskabidearekin, eskumenak dituzten ministerioek uholde horien ondorio larriak al bait gehien arinduko lituzketen neurriak eta laguntzak bidera ditzaten.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 25ean.

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE
LAS GRAVES INUNDACIONES
OCURRIDAS EN EL MES DE JULIO EN
LA ZONA MEDIA DE NAVARRA Y EN EL
MES DE SEPTIEMBRE EN LA ZONA ES-
TE DE LA PENÍNSULA Y BALEARES**

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz muestra su solidaridad con los ayuntamientos y las personas que sufrieron el pasado 8 de julio las consecuencias de las lluvias torrenciales y la crecida del río Cidacos, en Navarra. Y especialmente, queremos solidarizarnos con la familia del joven fallecido en Villava.

Igualmente, nos solidarizamos con los ayuntamientos y personas damnificadas por las gravísimas inundaciones ocurridas entre el 9 y el 16 de septiembre en la zona este de la Península y Baleares. Singularmente, queremos mostrar nuestras condolencias a los familiares de las 7 personas fallecidas en este episodio.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz apoya la declaración de zona catastrófica o de zona gravemente afectada por una emergencia de protección civil solicitada por los respectivos gobiernos autonómicos al Gobierno del Estado.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se adhiere a la petición realizada por las instituciones respectivas al Gobierno español para que los ministerios competentes articulen medidas y ayudas que palién en la medida más amplia posible las consecuencias de las graves inundaciones citadas.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de septiembre de 2019